

«Arartekoak herritarrak hautatu hizkuntzan erantzun behar du»

Ez da lan erraza, lerro gutxi batzuetan, Juan San Martinek urteetan egindako lan eta jorraturiko alor guztien berri ematea. Zerrenda amaitezina litzateke eta. Eibartarrak, Ararteko lanean bost urte igaro ondoren, etapa berriari ekingo dio aurki, postua ondorengoari utzita. Hemendik aitzina, bertako lehendakari izendatu baitute, Europako Ombudsman Institutuan ariko da lanean. Hona hemen bere hitzak.

ARGIA. *Euskal literaturaz kezka berezia izan duzu beti, baita hamaika lan argitaratu ere; nola ikusten duzu gaur egungo euskal literatur produkzioa?*

JUAN SAN MARTIN.


Aurrerantz doa, baina ez opa dugun neurrian. Prosan asko aurreratu da, gauza interesgarriak egiten dira eta bide onetik doa. Hala ere, prosista batzuek pentsatzen dute orain sortu dutela hiz-

kuntza urbanistikoa, eta hori gezurra da. Gaurko prosistatik onenak ez du idazten Jean Pierre Duvoisinek bezain ondo. Duvoisien edo Jean Barbierren estiloak ikusten badituzu... prosa

hoberik ez dago. Joan den mendeko idazle lapurtar-baxenafarren prosa denen gainetik dago, gaur egungotik ere.

A. *Eta poesia? Arduza bantia izan baituzu beti euskal poesiaz.*

J.S.M. Poesiak, ez badu hizkuntzaren erabilera bere apainduraz eta metaferez hornitzen, asko galtzen du, eta hori Gandiaga eta Juan Mari Lekuonaren ondoren ez dago. Merkekeria asko bai, ordea. Irakurri ditut, ha-



Abertzaleen lehen eginkizunak izan beharko luke euskaraz ikastea, eta ez da egiten. Zer aterako duzu abertzale ez direnetatik alde horretara? Hizkuntzaren alorrean sentimentua behar da.

la ere, gauza politak: Joxe Agustin Arrieta bera. Ez noa izenetan sartzera, baina.

Hizkuntza tipiek, berez, poesian izan behar dute indarra, sentimenduan. Lizardi, Lauaxeta, Orixe... begiratu behar dira. Oraingo gazteek lehengoa gutxiegi irakurtzen dute, eta erreferentzia galtzeko arriskua dago. Herri batek bere lotura behar du, gerorako mezua lehengoa ezagututa eman. Herri baten iraupena hor dago. Gure idazleak ez ditugu behar den neurrian baliatu. Erromantikoen artean prosa eta poesia izugarria dugu.

A. Bere garaian *Arte Ederretako* abolkulari izan zinen; *trantsizio garaiko Euskal Kontseilu Orokorrean* ere izan zenuen *kultura mailako ardurarik*. Urte guzti *bauetako esperientzi*az, *zein unetan dakusazu egungo euskal arte mundua?*

J.S.M. Artista askoz gehiago dago, baina merkekeria ere ugari. Hori materia tratatzeko moduan igertzen da, gaizki tratatutako materia sarri ikusten baita. Artistak materia tratatzen ez badaki alferrik da; ez da abstraktu eta figuratibo kontua. Dena den, garai batean baino hobea dago; gehiago ibiltzeaz aterako da selekzio bat.

A. *Nahiko beltz planteatzen duzu. Non da butsu-nea, formakuntzan agian?*

J.S.M. Hori ez da unibertsitatean ikasten, akademizismoan ezin da gelditu. Arte sorketa da, eta artistak, sortzeko, orain arte dagoena ezagutu eta handik gora zer egin dezakeen jakin behar du. Hori ez du eskolak ematen, inguruak baizik. Artista batek nahitaezkoa du atzerira joatea, puntan diren es-



kola nagusienak ezagutzea. Gaur Parise ez da garai bateko Meca, gaur New York ezagutu behar da, edo Alemania. Mugimendu berria sortzen ari da arte munduan eta eskola horietan egon behar da.

A. *Atzean geratzen ari al gara, beraz?*

J.S.M. Kopuruz ez, baina kalitatez bai. Gerra aurrean

oso ondo geunden, baina gerrak hondatu zuen hemengo eskola eta mugimendua... Eduki kontuan Espainian post-impresionismo mugimenduan aurrengo jarri zen hemengoa. Gerran, ordea, denek ihes egin behar, eta gerotik kromotxoak, paisaiak egiten aritu gara ehun arte atzetik... Gero mugimendu berria sortu zen 60an Oteizaren


-Administrazioak ombudsman otsana nahi du, baina ombudsman zintzoak herritarrekin egon behar du.

NORTASUN AGIRIA

Eibarren jaio zen 1922ko ekainaren 23an, egun Hondarribian bizi da ● Ezkondua, bi seme ditu ● Hogeitabat liburu idatzia, hamaika hitzaldi eta idatzi egin ditu

entnologia, historia, arte eta literaturaz ● 8.000tik gora alez osaturiko liburutegia da berea ● Joxemiel Barandiaranekin lan egina hura erbestetik itzuli zela ● «Egan» aldizkariaren zuzendaria izan da ● Euskaltzaina

● Mendizale porrokatua, kirol honetako espezialitate guztietan aritua gaztetan ● Pirinioetako hormarik zailenak eskalatu izan ditu, baita Alpeetako Mont Blanc eta Cervino ere ● Espainiako Mendi Federazioaren zilarrezko dominaren jabea ● «Gizona da gauza guztien neurria» esaldia eredutzat du.





-Herri bezala, gure jokabideak ikusita, eta ez dut bakarrik administrazioa esan nahi, joera politikoekin eta, pena handia hartu dut. Beti gabiltza zer baino zein lehenago, eta hori txarra da.

inguruan; baina horrek ez du behar bezala aurrera egin ondorengoak sortzen.

Pinturan ere 60ko horiek buelta eman zuten. Badaude pintura onak, baina hortik aurrerago joatea kosta egiten da. Nahiko pikortua ikusten dut dena. Ez du nahitaz herri baten identifikazioa izan behar. Hori lehen neurri batean lortzen zihuan, nahiz eta orain hori

falta den agian. 60ko manifestukoek, bakoitzak bere nortasuna eduki arren, sortu zuten horrelako inpaktu bat.

A. Behin baino gehiagotan esan omen zentzen Koldo Mitxelena eta Jorge Oteizari, -batengan bizkuntzalari zientifikoa bezala, besteagan arte sorketaren kontzeptuak errespetatzen- zehatu.

J.S.M. Oteizak alderdi onak ditu kontzeptu plastikoen aldetik, iritziak argi eta garbi ditu zer behar duen aurrerapenak... baina gero, prehistoriaz esaterako, ez daki nondik dabilen. Berak pentsatzen du kromletxak neolitikokoak direla, eta Burdin Aro hasierakoak dira... eta hori edozeinekin eztabaidatzeko prest dago, sututa gainera. Hizkuntzaz ari

■ «Euskaltzaindia azkarrago joatea nekeza da, akademia ezin da abiatu abenturetan» ●

dencan ere horixe gertatzen da.

A. Hizkuntzaren alorrean, izan ere, testiak gogor mantendu ditu Oteizak.

J.S.M. Bi adiskide erabat ezberdinak izatea suertatu zait, Mitxelena eta Oteiza. Mitxelena dena zientifikoa zen, eta Oteiza oso subjektibotasunaren munduan sartuta dabilena. Linguistika zientzia baten barruan sartua dago. Europatik ezer onik hartu badugu greziarrek munduari eman zioten analitiko izate hori izan da, gauzak zehatz-mehatz aztertzeke gogoia. Mitxelenak bazuen hori.

A. Euskaltzain bezala, Euskaltzaindiaren 75. urteurrena ospatzen ari den bonetan, nola ikusten duzu euskara batuaren prozesua? Bebar adinako azkartasunez erantzuten ari al zaie Euskaltzaindia eguneroko lanak bainbat alorretan sortzen dituen bizkuntza aldeko egokitzapen beha-

rrei?

J.S.M. Euskara batua, eskolen eta idazleen etorkizunari ezezik gure hizkuntzaren bizitzari ere loturik doa. Euskaltzaindiaren aldetik azkarrago joatea nekeza da, akademia ezin da abiatu abenturetan, beste zenbaitek hori egin badute ere. Huts egiteen ondorioak oso larriak dira. Euskaldunak, orokorki, berak ikasi behar du. Euskaltzaindiak, adibidez, sorreratik darabil «xostena» gaztelera «in-forme» gisa, baina Administrazioak «xostena» «memoria» gisa erabiltzen du, eta Euskaltzaindiarentzat «memoria» «oroit-idazkia» da. Txikikeriak, baina jaramon egin beharrekoak, noski.

Batzuetan hizkuntza aberastearren ondo ulertu gabeko hitzak gaizki erabiltzen dira. Horrela anarkia sortzen da, erabiltzen den hori jatorra dela ziurtasuna behar da. Batua denborak egingo du.

A. *Lebentasunetzkoa al da ahoskera batuari beltzea?*

J.S.M. Ahoskera atzetik etorriko da denborarekin. Urte askoz iraungo du horrek. Irrati eta telebistek egin beharreko lana da hori, idatizkoa eredu hartuz.

A. *Eibarko sozialismo historiko euskaldunago buru ezagutu duzu. Denboran aurrera eginez, zer ikusirik ba al du PSE-EEK euskal munduarekiko planteaturiko hurbilketarekin?*

J.S.M. Eibarko sozialista zaharregan ez nuen jarrera hartzerik ikusi. Toribio Etxeberriak idazten zituen gutunetan garbi adierazten zuen beren arazoa klase borroka zela, ez nazionalismoa, ezta hizkuntza ere. Han libre zen euskaltzale izan ala ez. Baziren euskaltzaleak, bazeuden munduan



hizkuntza bakarra behar zela esaten zutenak ere...

A. *Zer ekar dezake balizko aldaketa berri honek?*

J.S.M. Borondatea ekin-tez erakutsi behar da. Ni oso ezkorra naiz alderdie-tako kontu hauetan. Kontu egizu abertzaleen lehen eginkizunak izan beharko lukeela euskaraz ikastea, eta ez da egiten. Zer aterako duzu abertzale ez direneta-tik alde horretara? Hizkuntzaren alorrean sentimentua behar da.

A. *Zuk utziko duzun Ararteko postua betetzeko Xabier Markiegiaren izena atera da. Hizkuntzaren ildoari jarraituz, euskalduna izan behar al du Arartekoak?*


■ **«Askotan herritarra babesik gabe sentitzen da, Kafkaren «Prozesua»n kontaktzen zen bezala» ●**

J.S.M. Legeak ez du esaten euskaraz jakin behar duen ala ez, ezta erdaraz jakin behar duen ere. Ez dakit zergatik dagoen lege hori horrela. Katalunian eta Galizian bi hizkuntza ofizialak jakin behar ditu. Niri premiazkoa izan zait, beharrezkoa. Baina hori Arartekotza betetzen duen pertsona bakoitzak bere baitatik konpondu beharko du. Herri-tarrak eskubidea du kexua hizkuntza batean zein bestean aurkezteko. Arartekoak herritarrak hautatzen duen hizkuntzan erantzun beharra du, inor baztertu gabe.

A. *Zein da ombudsman baten benetako eginkizuna gaur egun? Administrazioek ez ote dute bide bonetatik herritarren presioa bizkar gainetik kendu nahi izaten?*

J.S.M. Ombudsmanak Administrazio publikoarentzat gogorra izan behar du, herritarraren alde aspertu gabe jardungo duena. Baina legearen esparru berean, ombudsman bakoitzaren jarrerak zer ikusirik aski du. Administrazioak ombud-

«Hizkuntza ttipiek literaturan nabarmen agertzen dutena poesia da; eta horretan aurrerapen gutxi egin dugu Gandiaga eta Juan Mari Lekuonaren ondotik. Bai ordea, eta aitortu beharrezkoa zait, narratiban. Hala ere, Axular ezezik, joan zen mendeko idazle lapurtar eta baxenafarrak hobe begiratu behar ditugu egungo aurrerapenak neur ditzagun».



«Oteizak alderdi onak ditu kontzeptu plastikoen aldetik, iritziak argi eta garbi ditu zer behar duen aurrerapenak... baina gero, prehistoriaz esaterako, ez daki nondik dabilen. Berak pentsatzen du kromletxak neolitikoak direla, eta Burdin Aro hasierakoak dira... eta hori edozeinekin eztabaidatzeko prest dago, sututa gainera.»

smen otsana nahi du, baina ombudsman zintzoak herritarrekin egon behar du.

Arartekoa demokraziak esperientziak erakutsi duen parte garrantzitsua da. Demokraziari oreka ematen dio, herritarra babesik gabe ez sentitzeko. Askotan herritarra horrela egokitzen da. Kafkaren «Prozesua»-n kontatzen zen bezala. Kargua utzi eta gero nahiko nuke liburuxko bat egin gauza kafkiar horiez.

A. *Administrazioak Ararteko otsana nahi izaten duela esan duzu.*

J.S.M. Normala da. Guk berez legea betetzen badugu, molestoak izan behar dugu Administrazioarentzat. Otsana izatea arriskua da herritarrentzat. Independentzia gogorra eskatu behar zaio Arartekoari, politikaz susmorik ez du izan behar inondik.

A. *Nola baloratuko zenuke host urte hauetan Arartekoak eginiko lana? Administrazioarekin gogorra izan al zara zure jardunean?*

J.S.M. Administrazioak gehienetan ondo funtzionatzen du, baina hutsuneak baditu. Gure txostenean ez dira soilik herritarrek aurkeztutako kexuak jasotzen, baita guk bideratutako ofiziozkoak ere. Nik neure ekintzan erabakia hartu nuen, lehenbiziko urtean hutsuneak non ziren ikusita, bigarren urtean ofiziozko lanak egiten hasia. Zenbait alorretan hobe funtzionatzeko zein aldakuntza egin behar diren proposatzen dugu. Horrelako hiru egin ditugu: EAEko kalabozoez, eroetxez eta zahar-egoitzei buruz.

A. *Administrazioa eta herritarren artean amildegi*

bandia sortzen ari den bonetan, nola moldatu zara bi aldean erdian?

J.S.M. Esperientzia interesgarria izan da. Baina herri bezala, gure jokabideak ikusita, eta ez dut administrazioa bakarrik esan nahi, joera politikoekin eta, pena handia hartu dut. Beti gabilta zer baino zein lehenago, eta hori txarra da. Toribio Etxeberriaren esaldi hura ekarri nahi dut gogora: «Administrazio gizonik zintzoena hautatu behar da, eta hautatu ondoren lapurra balitz bezala zaindu». Demokrazia zentzuna hartzeko lan handia egin behar dugu oraindik, ez hainbesteko politizazioaz. Eta hori zuzentzen da bakoitzak bereari kontuak eskatuta, eta ez besteari. Bekataria beti beste taldekoa da hemen.

Alberto Irazu